

## 46. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2011ko irailaren 29an, arratsaldeko zazpitan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:**

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Azis Alberdi Zaldunbide jn.

Iñaki Ostolaza Esnal jn.

Arritokieta Gonzalez Elosua and.

Eneko Agirre Maiora jn.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Eduarne Egaña Manterola and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Ana Arranz Irigoyen and.

Isidro Fernandez Echave jn.

Aitor Leiza Alberdi jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Idazkaria:**

Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIK

### 1.- Aurreko aktaren onarpena

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) akats bat sumatu du aktan. Izan ere, "925.000 € diruzaintza gerakinetatik" izan beharrean "altxortegitik" izan beharko luke.

Zuzenketa eginda zinegotziek aho batez akta bere horretan onartu dute.



**2.- Zumaiako 17 HA Artadiko 17/3. EUko 4.E partzelari eta 17/2. EUko 1.1 eta 1.2 partzelei dagokion antolaketa xehekatuaren aldaketa puntualerako plan berezia behin betiko onartzea.**

Alkate jaunak irizpenaren laburpen bat egin du, gogoratuz udalak sustatzaileekin hitzarmen bat sinatu zuela eremuko etxebizitzak araubide tasatuari egokitzeko. Oraingo honetan, antolaketa xehekatua aldatu nahi da eraikigarritasuna aldatu gabe eta hasierako 23 etxebizitzetatik 32 etxebizitzetara pasatzea proposatzen duela plan bereziak, jakina, tipologian aldaketa eginez. Halatan, 4.e partzelan 3 etxebizitza joango lirateke, 1.1 etxebizitza bakarra eta 1.2 partzelan 2 etxebizitza. Guztira, beraz, 32 etxebizitza. Hirigintza batzordeetatik aztertu ondoren Alkate-dekretuz hasierako onarpena eman zitzaion plan bereziari eta alegaziorik egon ez denez gero, orain, behin betiko onarpena ematea dagokio udalbatzarrari.

Ana Arranz andreak (EAJ-PNV) batzordean aldeko botoa eman zutela baina irizpenean bi gai islatzea eskatu zutela adierazten du: batetik, etxebizitza tasatuen onuradunak aukeratzeko zein prozedura erabiliko den, eta, bestetik, saneamendu sareari dagokiona, izan ere udalak 2012ko ekainaren bukaerarako obra egiteko hitza emana dauka eta gustatuko litzaietxe jakitea obra zenbaterainokoa izango den.

Alkate jaunak erantzun dio hurrengo batzordean xehetasun gehiago emango direla saneamendu sarearen inguruan, Ur-agentziarekin eta Inmobiliaria Oriorekin harremanetan egon direla eta horien guztien berri emango duela udal-aparejadoreak batzordean. Etxebizitza tasatuen esleipenaren prozedurari dagokionez udalak Inmobiliaria Oriorekin sinatutako hitzarmenean jasotzen zela prozedura.

Ana Arranz andreak (EAJ-PNV) galdetzen dio ea etxebizitzak araubide librean saltzeko aukera izango ote duen sustatzaileak urtebeteko epean ez badira esleitzen tasatu bezala eta eroslerik egongo ote den hala saltzen badira.

Alkate jaunak erantzuten du Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela prozedura abiarazteko.

Emiliano Cabañas jaunak (PSOE) hasierako onarpenetik hona aldaketarik ez bada egon ados dagoela, baina urtebeteko epe horretan udala saiatu beharko litzateke etxebizitza tasatuak saltzen; bestela, Inmobiliaria Oriok nahieran saltzeko eskubidea izango baitu.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **8 boto** ( 6 BILDU;; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**



Abstentzioak: **5 boto** (5 EAJ-PNV)

**Erabakia:** Zumaia 17 HA 3. EUko 4.e partzelari eta 2. EUko 1.1 eta 1.2 partzelei dagokion antolaketa xehekatuaren aldaketa puntualerako plan berezia behin betiko onartzea

### **3.- Langileen Lanpostuen zerrendaren aldaketa, onartzea, bidezkoa bada**

Iñaki Ostolaza jaunak (BILDU) batzordean tratatutako gaia plenora dakartela onartu dezan ala ez. Batzordean azaldu dira lanpostuaren xehetasunak, funtzioak eta bestelakoak.

Edurne Egaña andreak (EAJ-PNV) plenoaren eskumena izanik erabakia hartzea, eta izendapen honek publiko egin arte izan duen ibilbidea kontuan izanik, euren ustean gobernuak plenoari zor dion errespetua zalantzan jarri du. Izan ere, kontratatuko den pertsonak berak hauteskundeak izan eta hurrengo egunetik isildu gabe ibili delako nonahi esanez laster udaletxera bueltatuko dela. Errespetu falta ez ezik gobernuak legaltasuna ere zalantzan jarri du, zinegotzi ohiarri aurreko legealdian eskuratu zuen mugikorrek jarraitzea utzi dionean eta gainera fakturak ordaindu dizkio eta hau frogatua dago pasa zaizkien fakturen zerrendan. Hori guztia gobernuaren jarreraren adierazgarria da, hau da, legea motz geratzen bada, paso egingo duela gobernuak eta aurrera jo. Ondoren ezezko botoa emateko arrazoiak adierazten ditu: bat subjektiboa, izan ere euren ustean lanpostua ez da beharrezkoa; ezarri zaizkion funtzioak ez du justifikatzen lanpostu berri bat sortzea zinegotziren bat liberatu beharrean. Herritarren ordezkariak zinegotzien bitartez gauzatzen da eta udaletxeko erabakiak zinegotzien bitartez bideratzen dira; herritarrek hautatu eta ezagunak dituzten ordezkarien bitartez eta ez beste inoren bitartez. Beste arrazoiak, berriz, objektiboa da. Akats formalak, hain zuzen ere. Lanpostuari ezarri zaizkion funtzioak ez datoz bat C1 taldearekin, eta hala adierazi zuen udal-teknikariak txostenaren inguruan galdetu zitzaionean batzordean. Funtzionario batek C1 sailkatuta egongo balitz ezingo litzuke funtzio horiek egin, goi-teknikari baten funtzioak baitira. Bestetik, Zumaia Udalean lanpostua sortzen den unetik 3. hizkuntza eskakizuna ziurtatuta behar du izan, hala dio udaleko euskara-teknikarien txostenak; eta, hortaz, RPTa aldatzen den unetik beretik ziurtatuta egon beharko luke perfila. Hau ez da betetzen, RPT-a euskara perfilik gabe dator, hutsik dator euskararen kasilla. Bete akats bat ere sumatu dute. Izan ere, lanpostua sortzeko aurrekontuan atxikimendua egin behar da eta tramite hori ez da egin. Zumaia Udalean horrelako lanposturik (behin behineko lanpostua) inoiz egon ez denez gero, ez dago partidarik horretarako. Aurrekontuen legearen arabera kontzeptu hori aurretik sartu beharko litzateke. Bukatzeko, gobernuak erakutsi duen errespetu faltagatik, gobernatzeko estilo honi ezetz esaten diote, alderdi bateko arazoak konpontzeko sortu delako forma eta eskakizun akatsekin, ezetz esaten diote.

Emiliano Cabañas jaunak (PSOE) legealdi honetan gauzak aldatuko zirela oso inozenteki sinistu zuen; gaiak tratatzeko moduak eta abar aldatuko zirela, baina agerikoa da kontrakoa gertatzen ari dela. Horren froga da, bada, gobernuak



## Zumaiako Udala

2011IAKU0011

zinegotziei, herriari, hautesle orori barre egin diola hauteskondearen hurrengo egunetik eta plenotik pasa gabe izendapena gauzatutzat emana izatea. Horrelako konfiantzazko lanpostuak oso bestelako tamainako udaletxeetan bakarrik sortzen dira eta ez ezinbestez, gainera. Egun udal-gobernuak dituen kideekin, bi talde politiko osatua, nahikoa jendea du lanpostu horren beharrik ez izateko. Are gutxiago, hautatu gabeko pertsona bat koordinatzaile moduan jarduteko. Zinegotzia izan gabe eta udal-langilea izan gabe telefono mugikor bat udalaren kontura erabiltzea errespetu faltaren adierazgarria da eta ez da legezkoa. Horrek guztiak, Alkatearen partetik, behintzat, barkamen bat ematea eskatzen du. Udal gobernuak hanka sartu du. Lanpostu hau ez da beharrezkoa eta pertsona bat hautagai aurkezten duenean bere burua zerrenda batean, jakin egin beharko luke non sartzen den. Udal-gobernuak Zumaiako herriari errespetua falta diolako eta lanpostu hau, nahiz ez-legala ez izan, bultzatu eta bideratu den arrazoiengatik ezezko botoa emango duela esanez bukatzen du bere mintzaldia.

Iñaki Ostolaza jaunak (BILDU), erantzuna ematen du lanpostu hau salbuespen egoera batean kokatzen dela beste jatorrizko salbuespen batek eraginda, eta, epe mugatua izango duela; urtebetekoa, alegia. Proposamena legezko prozedura jarraituz eraman dela plenora eta ez dutela beste biderik erabili. Merituei dagokionez, pertsonal teknikariaren txostenaren arabera, behin behineko lanpostua ez da oinarritzen meritu eta gaitasun printzipioetan, konfiantza politikoan, baizik. Eta testuinguru horretan, hain zuzen ere, kokatu dutela lanpostuaren sorkuntza. Plenoarekiko errespetu falta aitatzen denean ez dute ulertzen zertaz ari den, izan ere Bilduk prentsa-oharra argitaratu zuen bere asmoak zein ziren azaltzeko, intentzioa, alegia. Telefonoari dagokionez bere eskutan segi zuela eta gastuak egon zirela egia dela dio eta lehenagotik itzuli beharko zukeela baina guztiak jada itzultita daudela, eta, gogora ekartzen du aurreko legealdiko beste zinegotziek ere ordenagailu eramangarri bana zutela eta hilabete bat igaro ondoren itzuli zituztela, disko gogorra ezabatuta eta hutsik. Aurrekontu atxikimendurik egon ez denaren aurrean, bi liberazio egiteko gordeta zegoen dirua egokitu dela adierazten du. Bestetik, erabakiak hartzeko eskumena zinegotziek bakarrik dutela esaten denean, lehenago, orain eta gero ere zinegotziek bakarrik hartuko dituztela adierazten du, laguntza lanak besterik ez dituela egingo erabakiak hartu gabe eta teknikariei aginduak zinegotziek bakarrik emango dizkietela eta ez behin behineko langileak. Azkenik, PSOEko zinegotziari erantzunez, Bildukoei arpegiratzen dienean norberak jakin behar duela non aurkezten den, alegia, arrazoi duela dio eta berak ere jakin beharko lukeela Zumaiari aurkezten denean euskararen ez jakintasunak udalaren lanari mugak sortzen dizkiola eta herri euskaldun batean eta euskaraz lan egiten dutenei euren lana oztopatu eta baldintzatu egiten duela.

Ondoren zinegotziek eztabaidatzen jarraitzen dute gaiari buruz eta bozkatzeari ekiten diote

## ERABAKI ZATIA



**Zumaiako Udala**

2011IAKU0011

Aldeko botoak: **7 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **6 boto**(5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** Langileen Lanpostuen Zerrenda aldatzea onartzen da

#### **4.- UEMAko ordezkariak izendatzea**

Alkate jaunak UEMAn ordezkariak izendatu behar direla eta Zumaiako biztanleen arabera lau zinegotzik ordezkatuko dutela udala UEMAn adierazten du.

Azis Alberdi jaunak (BILDU) erabakia hartu dutela eta ordezkariak Montse Arana, Eneko Agirre, Iñaki Ostolaza eta bera izango direla azaltzen du.

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) erabakia baino proposamena dela ohartarazten die eta nahiz UEMAn irizpide guztiekin bat ez etorri alde egingo dutela.

Alkate jaunak proposamena bozkatzera pasatzea agintzen du

#### **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU; 1 ARALAR; 5 EAJ-PNV)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

**Erabakia:** UEMAn Zumaiako udaleko proposatutako ordezkarien izendapenak onartzen dira

#### **5.- Txirrindularitza bai! Inposaketarik ez! (Bilduren mozioa)**

Alkate jaunak gaia aurkezten du esanez bozeramaileen batzordean EAJ-PNV eta BILDU adostasun batera iritsi zirela eta, hortaz, plenora eraman den mozioari EAJ-PNV proposatutako testu zati bat erantsiko zaio testu osoari, azken paragrafoan, hain zuzen ere.

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) erantsitako testu zatia irakurtzen du (Euskal Herria nazioa dela aitortuz, Unipublic 2011ko Txirrindularitza Itzulia antolatzen duen enpresari eta Espainiako Txirrindularitza Federazioari, errealitate hau aintzat hartuaz antolatu dezatela aurtengo eta hurrengo urteetan txirrindularitza itzuli hau)

Emiliano Cabañas jaunak (PSE-PSOE) alderdi abertzaleen ikuspegitik nazioaren gaia planteatzea logiko ikusteagatik ere, kontuan izanik Tour-a arazorik gabe



**Zumaia Udala**

2011IAKU0011

nazio desberdinetatik pasatzen dela eta Giro-aren kasuan beste hainbeste, Vuelta ez da salbuespena eta beste herrialdeetatik atera izan denez gero, gauza nahasten besterik egiten ari direla esaten du; are gehiago mundu globalizatu honetan. Vuelta ikustera joan diren milaka pertsonari galdetu behako liekete ea zer iritzi dioten, hemen kirol kontua besterik ez baitago eta politikarekin nahastu ez behar dena.

Alkate jaunak Euskal Herria nazio bat dela eta txirrindularitza erabiltzea errealitate hori zapuzteko ez dute bidezkoa ikusten. Hortaz, Vuelta noiz behinka lurralde honetatik pasatzeari ez diote gaizki irizten, baina bai sistematikoki eta urtero lurralde hau Espainia izango balitz bezala.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU; 1 ARALAR; 5 EAJ-PNV)

Aurkako botoak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** Txirrindularitza bai! Inposaketarik ez! mozioa onartu egiten dute

### **6.- Galderak eta eskaerak**

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) duela hiru hilabete Alkateak kargu hartu duela eta zenbait informazio eskatu dute eta orain arte oso gutxi jaso dutela. Organigrama eta dirukontuena izan ezik kontratuak, lokalak, mugi zerbitzua, Zumaia.net-en funtzionamendua, kostua, Udaltzaingoaren egoera, langileen formazioa eta funtzioak oraindik ez dute horren berririk.

Alkate jaunak erantzuten dio udala lanpetuta dagoela eta oposizioak duen informazio eskubidea aitortuta Alkateak informazioa administratzeko ahalmena du. Udaletxe guztia ezin jarriko da oposizioarentzat lanean. Udal-gobernuak ezartzen ditu irizpideak eta horretan ari da udaleko jendea. Halere, zuen informazio eskubidea bermatzeko ahaleginak egiten ari direla gehitzen du, baina eskaerak ez direla nolanhikoak eta bat-batean erantzuteko. Hortaz, erantzunak emango zaizkiela esanez bukatzen du.

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) onartzen du zenbait eskakizun luzeak direla baina adibidez zumaia.net-en inguruan galdetutakoa, hau da, zein batordetik eramaten den, zein aurrekontu, udalak jartzen dituen baliabideak... Mugi zerbitzuaren kasuan zein kostu duen eta abar ez dira hain konplikatuak erantzuten.

Alkate jaunak erantzuten du Mugi zerbitzuaren kontua ingurumen batzordean azalduko dela eta gainontzeko gaiak idazkaritzan lantzen ari direla.



## Zumaiko Udala

2011IAKU0011

Emiliano Cabañas jaunak (PSE-PSOE) herritar baten eskaera bideratzen du. Izan ere, bidegorria egiten ari diren zonalde hartan, Narruondon, hain zuzen ere, hasieran zegoen hormigoï hormaren ordeztasun jarri dute etxeen fatxadaren kontra eta badirudi horrek hezetasuna eragin dezakeela. Hori saihesteko fatxada iragazgaiztu dezakeen zerbait jartzeko eskatzen dute herritarrek.

Alkate jaunak auzoko herritarrekin harremanetan egon dela behin baino gehiagotan eta eskatu zituzten zenbait hobekuntza proiektuan sartu zituztela erantzuten dio. Halere aparejadorearekin hitz egingo duela ahal duen neurrian eskaria bideratu baldin bada. Proiektua aurrera doan ahala zenbait arazo sortzen ari direla ere gehitzen du, batzordeetan aipatu direnak. Nolanahi ere, planteamendu berri horren kostuaren arabera ikusiko dutela zer egin daitekeen eta hurrengo batzordean informatuko duela.

HERRITAR batek zerbait esateko duenez gero, Alkate jaunak hitza ematen dio. Herritarrak, Muniosoroko bizilaguna hain zuzen, 110 egun etxean urik gabe egon dela salatzen du, eta Alkate eta hirigintza arduradunekin behin baino gehiagotan egon dela hitz egiten baina arazoa ez dela konpontzen. Hori dela eta, udal-gobernuari konponbide bat eman diezaiola eskatzen dio. Gainera proiektu tekniko berri bat aipatzen du hamabost baserrien artean ordaindua izango litzatekeena.

Alkate jaunak erantzuten dio uraz gozatzeko eskubidea aitortuta, oinarrian pribatuen arteko liskar bat dagoela eta Administrazioak berez ez lukeela zertan sartu. Nolanahi ere, Zapateroren diru-laguntzaz baliatuz saneamendu sarea ahalik eta urrunen iristeko obrak egin zirela; zubia dagoen lekura gutxi gorabehera. Teknikarien arabera legezko tasun irizpide minimoak guztiz bete ziren. Arazoa sortu da metro batzuk falta direla herritarraren etxera eta ezinezkoa dela hara iristea. Aizarnazabaleko udaletxearekin hitz egin zuten agian handik errazago egin zitekeelako obra (Zumaiko Udala prest zegoen ekarpen ekonomikoa egiteko). Baina, kostua oso handia zela-eta Aizarnazabalgo alkatesa ohiak deuseztatu egin zuen gaia. Bukatzeko Alkate jaunak hitza ematen dio proiektu berria aztertzeke eta behar bezala bideratzeko gaia.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-lehendakariak bilera amaitutzat eman du, gaueko zortziak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut,

Alkateak,

Idazkariak

## ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA Nº 46

En la villa de Zumaia siendo las diecinueve horas del día veintinueve de septiembre del dos mil once, se constituye en el Salón de Sesiones de ésta Casa Consistorial el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y a la que habiendo sido citados en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la Corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sr. Azis Alberdi Zaldunbide

Sr. Iñaki Ostolaza Esnal

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua

Sr. Eneko Agirre Maiora

Sra. Maitane Agirre Arrieta

Sra. Montse Arana Perez

Sra. Edurne Egaña Manterola

Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua

Sra. Ana Arranz Irigoyen

Sr. Isidro Fernandez Echave

Sr. Aitor Leiza Alberdi

Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

**Secretario:** Sr. Gorka Urgoiti Agirre





## ORDEN DEL DÍA

### 1.- Aprobación, si procede del acta de las sesión anterior

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV) comenta que hay un error en el acta. Donde dice, "925.000 € de "remanentes" debe de decir de "tesorería".

Hecha la corrección se aprueba el acta por unanimidad.

### 2.- Aprobación definitiva del plan especial para la modificación puntual de la ordenación pormenorizada del AU 17-Artadi, referida a las parcelas 4E de la UE 17/3 y 1.1 y 1.2 de la UE 17/2 de Zumaia.

El Sr. Alcalde hace un resumen del dictamen recordando el Ayuntamiento firmó un convenio con los promotores para que las viviendas de ese ámbito se adecuaran a las normativa de viviendas tasadas. Se quiere modificar la ordenación pormenorizada sin cambiar la edificabilidad, de modo que el plan especial propone pasar de las 23 viviendas iniciales a 32 viviendas. De modo que en la parcela, 4.E se construirían 3 viviendas, en la 1.1 una única vivienda y en la parcela 1.2 dos viviendas. Tras analizar el tema en las comisiones de hacienda se le dio la aprobación inicial al plan especial mediante decreto de alcaldía, y al no haber alegaciones, corresponde al Pleno dar la aprobación definitiva.

La Sra. Ana Arranz (EAJ-PNV) manifiesta que votaron a favor del dictamen pero que propusieron que en el mismo se reflejaran dos temas; por un lado que se aclare de qué forma se va a hacer la selección de los beneficiarios de las viviendas tasadas y por otro lado el tema de la red de saneamiento. Dado que el Ayuntamiento tiene comprometida su palabra de que va a hacer la obra para finales de junio del 2012, les gustaría saber a cuánto asciende la obra.

El Sr. Alcalde responde que se darán más detalles de la red de saneamiento en la próxima comisión, que han estado en conversaciones con el consorcio de aguas y con la inmobiliaria Orio, y que el aparejador municipal dará cuenta de todo ello en la comisión. En cuanto a la forma de adjudicar las viviendas tasadas el procedimiento se recoge en el convenio firmado entre el Ayuntamiento y la inmobiliaria Orio.

La Sra. Ana Arranz (EAJ-PNV) pregunta si el promotor tendría la posibilidad de vender las viviendas en régimen de libres si en transcurrido un año no se hubieran adjudicado como tasadas; y si así fuera, pregunta si habrá compradores suficientes para las mismas, si hay alguna estimación al respecto.

El Sr. Alcalde responde que están hablando con el Gobierno Vasco para definir el procedimiento.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSOE) comenta que si desde la aprobación inicial no ha habido cambios está de acuerdo, pero en el plazo de un año el



**Zumaia Udala**

2011IAKU0011

Ayuntamiento debería de hacer un esfuerzo para vender las viviendas como tasadas; de lo contrario, la inmobiliaria Orio estará en disposición de venderlas como quiera.

### **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **8** ( 6 BILDU;; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Votos en contra: **0**

Abstenciones: **5** (5 EAJ-PNV)

**Se aprueba definitivamente el plan especial para la modificación puntual de la ordenación pormenorizada del AU 17-Artadi, referida a las parcelas 4E de la UE 17/3 y 1.1 y 1.2 de la UE 17/2 de Zumaia.**

### **3.- Aprobar, si procede, la modificación de la relación de puestos de trabajo.**

El Sr. Iñaki Ostolaza (BILDU) presenta el tema tratado en comisión para que sea aprobado, si procede. En la comisión se han explicado las funciones del puesto y los demás detalles.

La Sra. Edurne Egaña (EAJ-PNV) pone en duda si se ha tenido para con este pleno el respeto que se le debe, ya que es competencia de este pleno hacer el nombramiento y, sin embargo, antes de acordarlo por el pleno ya se ha hecho público como si ya se le hubiera nombrado. La misma persona que va a ser contratada, desde el día siguiente a las elecciones ha estado diciendo en todas partes que iba a volver al Ayuntamiento. Lo cual es una falta de respeto, además, ha puesto en duda la legalidad de todo este tema porque el ex concejal ha seguido utilizando el teléfono móvil que se le facilitó en la anterior legislatura y se le han pagado las facturas por el Ayuntamiento; esto último está demostrado en la relación de facturas que les han pasado. Todo esto demuestra cual es la actitud del Gobierno, queda claro que si la ley les queda corta la pasan por encima y listo. A continuación pasa a argumentar el voto en contra: Una de las razones es subjetiva, y es que para ellos este puesto no es necesario, las funciones que se le han asignado no justifican la creación de un puesto en lugar de liberar un concejal. La representación de los ciudadanos se materializa a través de los concejales y las decisiones del Ayuntamiento se encauzan mediante los concejales; mediante los concejales que han elegido los vecinos porque les son conocidos y por medio de nadie más. La otra razón en cambio es objetiva. Hay defectos de forma. Las funciones que se le han asignado al puesto no son acordes con el grupo C1, y así mismo lo manifestó la técnico municipal cuando fue preguntada al respecto en la comisión. Un funcionario que fuera adscrito al grupo C1 no podría ejercer esas funciones puesto que son funciones de un técnico superior. Por otro lado debe de tener acreditado el PL 3. desde el momento en que se crea el puesto en el Ayuntamiento, así lo confirma el informe de la técnico de euskara, de modo que el perfil debe de estar acreditado desde que se modifica la RPT. Este



## Zumaia Udala

2011IAKU0011

requisito no se cumple, la RPT viene sin perfil, con una casilla en blanco. Además han detectado otro error, para que se cree el puesto tiene que haber una asignación presupuestaria y ese trámite no se ha cumplido. Como en el Ayuntamiento de Zumaia no ha habido nunca un puesto semejante, no hay partida designada para eso. Según la ley de presupuestos este concepto debería de estar incluido con anterioridad. Para finalizar, por la falta de respeto que ha demostrado por este Gobierno, dicen que no ha este estilo de gobernar. Dado que se ha creado para dar respuesta a los requerimientos de un partido, con defectos de forma, dicen que no.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSOE) dice que creyó inocentemente que esta legislatura habían cambiado las cosas; y que cambiarían la forma de tratar los temas y demás, pero está claro que está ocurriendo lo contrario. Una prueba de eso es que el gobierno se ha reído de los concejales, del pueblo y de todos los electores, al haber dado por hecho el nombramiento desde el mismo día siguiente de las elecciones sin haber pasado por el pleno. Semejantes puestos de confianza sólo se dan en Ayuntamientos de muy distinto tamaño y suele ser porque no hay más remedio. Con los miembros que tiene el Gobierno municipal hoy en día siendo además dos grupos políticos tiene suficiente gente como para no tener la necesidad de un puesto semejante. Menos aun, para que una persona que no haya sido elegida actúe como coordinador. Que una persona sin ser concejal ni trabajador del Ayuntamiento utilice un teléfono móvil a cuenta del Ayuntamiento es una prueba manifiesta de falta de respeto y no es legal. Todo ello requiere que el alcalde pida perdón, el gobierno ha metido la pata. Este puesto no es necesario y cuando una persona se presenta para ser elegida en una lista, debería de saber lo que ello implica. Acaba su intervención diciendo que el gobierno municipal ha faltado el respeto al pueblo de Zumaia, y debido a las razones que han llevado al gobierno a impulsar este puesto, aunque no sea ilegal, su voto va a ser negativo.

El Sr. Iñaki Ostolaza (BILDU), responde diciendo que este puesto se entiende en el marco de una situación excepcional que viene a su vez motivada por otra situación excepcional, y que su duración será limitada a un año. Dice también que la propuesta se ha llevado al pleno mediante el procedimiento legal y no han utilizado ninguna otra vía. En lo que se refiere a los méritos, según el informe del técnico de personal el puesto eventual no se basa en los principios de capacidad y méritos, sino en el de la confianza política que es donde se sitúa la creación del puesto. No entienden de qué se está hablando cuando se habla de la falta de respeto para con el Pleno, ya que Bildu publicó la nota de prensa para manifestar cuales eran sus intenciones, lo que pensaban hacer. En cuanto al teléfono es verdad que ha estado en manos del ex concejal, y es verdad que hubo gastos, y que los debería de haber devuelto antes pero, ya está todo devuelto, en este punto recuerda que en la anterior legislatura todos los concejales tenían un ordenador portátil, que los entregaron después de un mes y con todo el disco duro borrado y vacío. En cuanto a que no hay asignación presupuestaria, se ha recurrido al dinero que estaba asignado para la liberación de dos concejales. Por otro lado respondiendo al argumento de que la competencia de tomar decisiones corresponde solo a los concejales dice, que seguirá siendo así, que antes, ahora y después las decisiones las



**Zumaia Udala**

2011IAKU0011

tomarán los concejales, solamente hará labores de apoyo sin tomar decisiones y los que den las órdenes a los técnicos serán los concejales, y no el trabajador eventual. En último lugar respondiendo al concejal del PSOE, cuando echa en cara a Bildu que cada uno tiene que saber a qué se presenta, tiene razón y el debería de saber que cuando se presenta en Zumaia sin saber euskara está poniendo trabas al trabajo municipal, y que en un pueblo euskaldun, entorpece y condiciona la labor de los que trabajan en euskara.

Tras alargarse un poco más en el debate se produce la votación

### **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **7** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Votos en contra: **6** (5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Abstenciones: **0**

#### **Se aprueba la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo**

#### **4.- UEMAk: nombramiento de representantes**

El Sr. Alcalde manifiesta que hay que nombrar a los representantes de UEMA y que en base al número de habitantes a Zumaia le corresponden cuatro concejales en UEMA.

El Sr. Azis Alberdi (BILDU) dice que han decidido y que serán Montse Arana, Eneko Agirre, Iñaki Ostolaza y él mismo.

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV) puntualiza que no es una decisión sino una propuesta. Darán su voto a favor a pesar de no estar de acuerdo con todos los criterios de UEMA.

El Sr. Alcalde da paso a al votación de la propuesta

### **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12** (6 BILDU; 1 ARALAR; 5 EAJ-PNV)

Votos en contra: **0**

Abstenciones: **1** (1 PSE-PSOE)

#### **Se aprueba el nombramiento de los concejales propuestos**

#### **5.- ¡Si! Al ciclismo, ¡No! A la imposición (Moción de Bildu)**



**Zumaiako Udala**

2011IAKU0011

El Sr. Alcalde ha presentado el tema diciendo que en la junta de portavoces EAJ-PNV y BILDU llegaron a un acuerdo por el cual a la moción presentada en el Pleno se le añadirá un texto propuesto por EAJ-PNV, en el último párrafo.

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV) lee el texto que se le ha añadido (Reconociendo que Euskal Herria es una nación que la empresa, Unipublic organizadora de la vuelta 2011k y la federación de Ciclismo de España tengan en cuenta esta realidad a la hora de organizar las vueltas de los próximos años.)

El Sr. Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) aunque ve lógico que se plantee este tema desde el punto de vista de los partidos abertzales, teniendo en cuenta que el Tour pasa por diversas naciones sin problemas y lo mismo el Giro, la Vuelta no tiene porque ser una excepción, de modo que la impresión es que se están confundiendo las cosas, más todavía en este mundo globalizado en el que vivimos. No hay más que preguntar a los miles de ciudadanos que han ido a ver la Vuelta que es lo que opinan, aquí el único tema es deportivo y no hay que mezclarlo con la política.

El Sr. Alcalde responde que Euskal Herria es una nación y no ven justo que se utilice el ciclismo para desvirtuar esta realidad. No ven mal que la Vuelta pase de vez en cuando por este territorio pero sí que eso se haga sistemáticamente como si esto fuese España.

#### **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12** (6 BILDU; 1 ARALAR; 5 EAJ-PNV)

Votos en contra: **1** (1 PSE-PSOE)

Abstenciones: **0**

**Se aprueba la moción ¡Si! Al ciclismo, ¡No! A la imposición**

#### **6.- Ruegos y preguntas**

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV) dice que hace tres meses que solicitaron varias informaciones al alcalde y que hasta ahora han recibido muy poco. A parte del organigrama, el estado de las cuentas, los contratos, los locales, el servicio Mugi, el funcionamiento de Zumaia.net, la situación de la Policía Municipal, y la formación y las funciones de los trabajadores, todavía no tienen noticias.

El Sr. Alcalde responde que el Ayuntamiento tiene mucho trabajo, y aún aceptando el derecho de la oposición a estar informada, es el alcalde el que tiene la potestad de administrar esa información. Todo el Ayuntamiento no se puede poner a trabajar para la oposición. Es el gobierno municipal el que establece los criterios y la gente del Ayuntamiento está trabajando en base a ellos. A pesar de todo añade que se están esforzando para garantizar el derecho de la oposición a estar informada, pero las peticiones no son simples



## Zumaia Udala

2011IAKU0011

como para responderlas de un día para otro. Finaliza diciendo que ya tendrán las respuestas.

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV) acepta que alguna información solicitada no es fácil de dar pero por ejemplo, lo preguntado sobre zumaia.net; en que comisión se trata, que presupuesto tiene, los recursos que pone el Ayuntamiento... en el caso del servicio Mugi que coste tiene etc., no son tan complicadas de responder.

El Sr. Alcalde ha respondido que el tema del servicio Mugi que explicará en la comisión de medioambiente y el resto de los temas se están trabajando en secretaría.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) da voz a la solicitud de un vecino. En la zona de Narruondo, donde se está construyendo el carril bici, donde antes había hormigón han puesto césped contra las fachadas de las casas y parece que eso puede provocar humedades. Para evitar eso los vecinos solicitan que se ponga ago para impermeabilizar las fachadas.

El Sr. Alcalde responde que ha hablado más de una vez con los vecinos de la zona y que de hecho han incorporado en el proyecto algunas mejoras que han solicitado. A pesar de todo hablará con la aparejadora para que en la medida de lo posible se pueda hacer lo que piden. Añade que ha medida que avanza el proyecto están surgiendo algunos problemas que se han ido comentando en las comisiones. De todas formas en base al coste de este nuevo planteamiento se verá que es lo que se puede hacer, e informarán en la siguiente comisión.

Hay un ciudadano que solicita la palabra y el alcalde se la concede. El ciudadano, vecino de Muniosoro, denuncia que lleva 110 días sin agua corriente en su casa. Que ha hablado más de una vez tanto con el alcalde como con el responsable de urbanismo pero que el problema no se soluciona. Por eso solicita al gobierno municipal que de una solución a su problema, menciona además un nuevo proyecto técnico que se pagaría entre 15 casas.

El Sr. Alcalde responde, que reconociendo el derecho de tener agua, en la base de este problema hay un enfrentamiento entre dos particulares, y la Administración no tendría porque meterse. A pesar de todo y valiéndose de las subvenciones de Zapatero se hicieron las obras para que la red de saneamiento llegara lo más lejos posible, hasta donde está el puente más o menos. Según los técnicos se cumplieron totalmente los criterios mínimos de legalidad. El problema ha surgido porque faltan unos metros hasta la casa del vecino y es imposible llegar hasta allí. Hablaron con el Ayuntamiento de Aizarnazabal pensando que desde allí sería más fácil la obra (El Ayuntamiento de Zumaia estaba dispuesto a hacer la aportación económica) Pero dado el gran coste de la obra el alcalde de Aizarnazabal desestimó el proyecto. Para finalizar el Sr. Alcalde da su palabra que estudiará el tema y tratará de conducirlo.



2011IAKU0011

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las veinte horas veinticinco minutos, y yo el secretario doy fe.